

Diskurtsuaren analisisiaz

X. ARRAZOLA ETA F. MIGURA
(EHU, Donostia)

Abstract

In this article, we will be mainly concerned with some approaches for explaining the coherence of discourse. Our starting point will be discourse understood as a unit used in linguistic communicative behavior. In accordance with this view, we will suggest that the pragmatic approach to discourse based on an intentional-inferential model provides the more promising and natural account of the problem of coherence of discourse.

1. Sarrera¹

Gauza jakina da hizkuntzalaritzaren arloan azterketa gehienak hitzen eta perpau-sen inguruan garatu direla. Horrela, neurri handi batean ikuspegi lexiko eta propo-sizionalak nagusi izan dira. Beraz, hizkuntzaren filosofiaren eta hizkuntzalaritzaren historian zehar, ikerketa bideratu duen helburu "sistematikoa" ondoko galdera hone-tan labur daiteke: Nola antolatzen dira hitzak perpausak sortzeko?. Erantzunaren bila, ebazpen bai sintaktikoak bai semantikoak bai sintaktiko-semantikoak eman dira batez ere. Ikuspegi hau onartuko bagenu, hizkuntza natural baten sistemak, "konposaketa printzipio(et)an" oinarrituz, forma linguistiko eta edukin semantikoa-ren arteko erlazioaren berri emango liguke.

Azkeneko urteotan hizkuntzak komunikazio tresna bezala dituen ezaugarriak azpimarratu direnean, hizkuntzaren alde pragmatikoaren istudiora bideratu da inte-resa eta, batez ere, fenomeno linguistikoetan testuinguruak duen eragina aztertzer-a. Ikuspegi honen arabera, perpau-saren pragmatika landu da, kontuan izan gabe diskurtsuaren testuinguru aberatsa. Perpau-saren ikerketa gaindituz, diskurtsuaren ezaugarriak aztergai bilakatzen direnean, hizkuntzalaritzaren helburu sistematikoa aldatu egiten da: Nola antolatu perpausak diskurtsu gisa izendatutako totalitate handiagoan?. Alde sintaktiko, semantiko eta pragmatikoak kontsideratuz, dis-kurtsuaren analisiak hizkuntzaren egitura eta funtzioaren azterketak batzen ditu,

(1) Ikerketa hau Euskal Herriko Unibertsitatearen ikerkuntza proiektu baten ondorioa da (UPV 003.230-HA171/93). Logika, Kognizio, Hizkuntza eta Informaziorako Institutuko partaideak eskertu nahi ditugu. Bereziki, J. M. Larrazabal eta K. Korta, beraiengandik jaso ditugun kritika eta laguntza-gatik.

perpausen kate baten erabilera koherentziazko diskurtsu batean nola gertatzen den azaltzeko helburuarekin. Bestalde, koherentzia honek irekiko digu hizkuntzaren prozesamendurako bidea, guztiz beharrezkoa baita diskurtsua azterketa objektu bezala mugatzeko eta baita ere konputazionalki tratatzeko. Zentzu honetan hartu behar da ia duela hogeit hamar urte van Dijk-en eskutik jasotako proposamena, hain zuzen diskurtsuaren semantika eta pragmatikari bidea ireki zioenean (van Dijk 1977: 1-4):

The linguistic study of discourse, being part of the more general study of natural language, must share its basic aims with linguistic theories in general and with grammars in particular. Therefore, it should be determined what the empirical object of such a study is, which properties of that object should be accounted for, and what the nature of such an account should be ... An important corollary (...) is the further assumption that discourse is systematically related to communicative action. In other words, the pragmatic component should not merely specify appropriateness conditions for sentences, but also for discourses... By thus specifying the semantics as a theory which explicates both meaning and reference, and both lexical meaning and general meaningfulness conditions determined by world knowledge, we will be able to make explicit one of the central notions of a semantic analysis of discourse, viz COHERENCE.

2. Oinarri kontzeptualak.

Nola antolatzen da diskurtsua?. Jasoko ditugun erantzunak ezberdinak izango dira eta hizkuntzalaritzan nagusi izan diren bi "paradigma" klasikoaren arabera eman- go eta funtzionalak batzen dituen, esaldiak² (perpauza + erabilera) diskurtsuaren unitate gisa hartuz.

Schiffirin 1994-k diskurtsuaren analisisirako aurkeztzen dituen hurbilketa ezberdi- nen artean ondoko lau hauek erabiliko ditugu oinarritzko kontzeptuak plazaratzeko: hurbilketa soziolinguistikoa (adibidez, Gumperz 1982a, 1982b, Goffman 1981), elkarriketaren analisisa etnometodologikoaren hurbilketa (adibidez, Sacks, Schegloff eta Jefferson 1974), hizketa-ekintzen hurbilketa (Austin 1962, Searle 1967) eta hurbilketa pragmatikoa (Grice 1957, 1969, 1975).

Schiffirin-ek kultura, gizartea eta hizkuntzaren arteko lotura estua abiapuntutzat hartzen duen diskurtsuaren analisisirako hurbilketari "elkarrekintzaren soziolinguisti- ka" deitzen dio. Testuinguru sozio-kultural ezberdinen arabera hizkuntza batean esaten denak mezu (enpirikoki) zeharo ezberdinak eraman ditzakeela baieztaturik, korrante honek fenomeno honen azterketari ekiten dio. Hizkuntza eta gizartearen arteko elkarrekintzek ikuspegi bikoitza sortuko dute: alde batetik, adierazpenei lotzen zaizkien esanahietan egoera sozialek duten eragina; eta bestetik, hizkuntza komunikazio tresna gisa harturik, bere erabilerak eremu sozialaren antolaketan (mai- laketa sozialean, banatutako roletan, etab.) duen eragina. Hitz gutxitan esanda, ikuspegi honen muina hau da: interpretazioa eta elkarrekintza esanahi linguistikoa eta sozialaren arteko harremanetan oinarritzen dira eta oinarri hauen funtzioan espli- katu behar dira.

(2) Ingeleseko 'utterance' itzultzeko, *esaldi* erabiliko dugu.

Bestalde, elkarrizketaren analisia helburutzat hartzen denean, ikuspuntu estrukturalaz gain, bide pragmatiko batetik abia gaitzke, elkarrizketaren alde funtzionala, hau da, komunikazio prozesuan betetzen duen paper nagusia azalduz.³ Dena den, hurbilketa estrukturalak, etnometodologiatik (Garfinkel 1967) eratorritakoak hain zuzen ere, antolaketa eta eraikuntza sozialari buruz ondorioak ateratzen ditu, elkarrekintzaren soziolinguistikak bezala. Ondorio hauek diskurtsuaren egiturara zuzenduta daude eta ez hainbeste bere osagaien esanahien interpretazio soziolinguistikora.

Diskurtsuaren analisirako berezi ditugun ikuspegien artean bi hauek interesatzen zaizkigu batez ere: hizketa-ekintzen hurbilketa eta hurbilketa pragmatikoa.

Hizketa-ekintzen hurbilketak hizkuntza ekintza gisa kontsideratzen du, hau da, hizkuntzaren erabilera "zerbait esateaz" gain "zerbait egitea" dela defendatzen du. Ikuspegi hau diskurtsuaren analisisira hedatuz, hizketa-ekintza batek, testuinguruaren arabera, izan ditzakeen funtzio ezberdinak aztertuko ditu, hoiere interpretaziorako baldintzak mugatuz. Horrela, esaldi baten bidez hizketa-ekintza bat gauzatzen denean, finkatu egiten da bide batez erantzun bezala onargarriak izan daitezkeen ekintzak. Hitzen esanahi literala eta emandako testuinguruak interpretazioaren baldintzen ezagutzarekin elkarrengaitan dutenean, bai ekintza bat eman dela, bai nolako ekintza eman den, bai ekintza bat baino gehiago eman den ala ez inferentzialki erabaki dezakegu. Beraz, diskurtsuaren koherentzia ekintzen arteko erlazio funtzional ezberdinetan oinarritzen da testuinguruaren arabera. Hau da, diskurtsuaren koherentzia ekintzen arteko koherentzian datza.

Dakigunez, Griceren hizkuntzaren filosofiari lotuta agertzen zaigu hizkuntzaren azterketa pragmatikoa. Griceren irizpide pragmatikoaren arabera, hizkuntza erabiltzerakoan kontribuzio ezberdinen esanahia hitzunen asmo komunikatiboetatik eratortzen da. Nahiz eta azterketa esaldien mailan burutua izan, hitzunen jokaera intenzional eta inferentzialek unitate handiagoen analisirako bideak irekitzen dituzte. Griceren pragmatikak diskurtsuaren koherentziaren berri emateko ezaguna den kooperazio printzipioa eskaintzen digu. Hitzunen esanahia komunikazio asmoetan datza eta komunikatzen dena, esandakoa baino gehiago izanik, prozedura inferentzialak aplikatuz berreskura daiteke, hitzunen eta entzuleen kontribuzioek Kooperazio Printzipioak (Grice 1975) suposatzen duen jokaera arrazionala betetzen badute.

Ikuspegi orokor batetik hartuta, hurbilketa guzti hauek helburu zehatz bat dute, alegia, esaldi kate posible guztien artetik diskursu bat osatzen dutenak mugatzea, errekursu sintaktiko, semantiko eta pragmatikoak erabiliz. Egia da aportazio gehienak linguistikaren eremutik at eman direla, baina van Dijk 1977-k hauxe dio :

It is in this sense that a linguistic theory of discourse is intended not only as a contribution to linguistics but also as a basis for the study of discourse in other disciplines, thus further advancing the integration of discourse analysis into the general study of language and communication (van Dijk 1977: 13).

(3) Ikus Korta 1994, elkarrizketaren hurbilketa funtzional baterako.

Laburki deskribatu baditugu ere, azaldutako kontzeptu hauek, nolabait, gure proposamenaren oinarri garrantzitsuenak islatzen dituzte. Alde batetik, diskurtsua ez da esaldien kate huts bat, koherentzia duen zerbeit da. Bestetik, koherentzia ez dator zuzenean esanahi literal edo forma linguistikotik, diskurtsuan ematen diren kontribuzioak modu egokian interpretatzeko testuingurua ere beharrezkoa delako. Laburtuz, diskurtsua esaldien kate koherentea da.

Diskurtsuaren analisiak, beraz, hizkuntzalaritzatik jasoko dituen azterketa estruktural ez gain, onartu egin beharko ditu beste eremuetatik etorriko zaizkion ekarpenak, diskurtsuaren izaera funtzionalaren berri eman nahi badu. Horrela, hizkuntzaren funtzioen artetik funtzio komunikatiboa nagusituko da, hiztunen asmo eta usteak ere kontuan izan beharko ditugularik. Guzti honek komunikazioaren ikuspegi klasikoa, kodifikazio-dekodifikazio prozesuan oinarritzen dena, baztertu egingo du, komunikazioaren izaera situatu edo sozialaren berri emateko aski ez delako. Aipatu hurbilketek ezinbestekoa dute elkarreraginaren kontzeptua, nahiz eta ezberdintasunak egon elkarreragin horren aktoreetan. Dena den, elkarreragina aspektu estruktural eta funtzionalen arteko elkarreragin bezala ulertzen da. Alde batetik, beraz, esaldiak, perpausak hobeto esanik legoke, eta bestetik, testuinguruko eragile guztiak (egoera konkretua, amankomuneko ezagutza, rol sozialak, uste eta asmoak) diskurtsuaren analisirako elementurik oinarritzkoenak bihurtuko dira.

Defendatu nahi dugun diskurtsuari buruzko ideiak ekintzarekin zerikusi handia du, ekintza berezia baita, alegia, elkarrekintza. Diskurtsua ekintza bezala definitu eta zer nolako ekintza den mugatzeak bidea irekiko dio diskurtsuaren eraikuntzan zein asmo, uste eta helburu jokoan jartzen diren aztertzeari.

3. Diskurtsua ekintzaren bidetik: komunikazio asmoa.

Esan dugunez, funtzionalismoak hizkuntzaren erabilera haintzakotzat hartzen du. Zehazkiago, diskurtsuaren analiziaz arduratzen denean, hizkuntza erabilera gisa kontsideratuz, diskurtsuak betetzen dituen funtzioak istudiatuko ditu eta hauen artean guri interesatzen zaiguna azpimarratuko du, hau da, funtzio komunikatiboa. Orokorrean, garbi dago zerbeit erabiltzerakoan zerbeit egiten dugula. Beraz, hizkuntza erabiltzerakoan hizkuntzarekin zerbeit egiten dugu, hots, hizkuntza tresna bezala kontsideratzen dugu.

Baina, nahikoa al da erabilera zentzu honetan hartzea diskurtsuaren alde funtzionala guztiz adierazteko? Guretzat ez da nahikoa. Hizkuntza zerbeit egiteko tresna bezala definitzen badugu, perpausak zerbeit esateko erabiltzen ditugun antzera, hizkuntzaren alde funtzionala ez da agortzen modu sakon batean. Azken finean, tradizio klasikoan hizkuntzaz onartutako ideiak "hizkuntza errepresentazio-egitura gisa", "hizkuntzaren esanahia", e.a. zentzu zabal batean paradigma funtzional honetara egoki daitezke. Aldiz, diskurtsuaren unitate gisa esaldiak kontsideratzen baditugu, perpausak ez bezala, ez dira ekintzak burutzeko erabiltzen ditugun zerbeit, baizik eta esaldiak berez, ekintzak dira.

Hizkuntza ekintza gisa hartzen duen ikuspegia hautatzeak edozein ekintzaren-tzako orohar postulatzen diren ezaugarriak ekintza linguistikoen kasurako ere

postulatzeraz behartzen gaitu. Hizkuntza giza-ekintza guztien artean kasu partikular gisa hartzen badugu, azken horien berezko mugaketak izango dute bere oihartzuna hizkuntzan ere. Azken honen aurrean, zera argudia daiteke: kezkatu behar gaituena ez da beste ekintza motekin duen antza, hizkuntzaren ezaugarri propioak baizik. (...)

Zer da ekintza? Segidan eztabaidatuko dugun ekintza nozioa, funtsean Searle (1983)-k ekintzaren ohizko filosofiatik jasoa duena, nozio psikologiko bat erabiliz argitzen da: asmoa. Hasteko agente batek egiten duena eta jazotzen zaionaren artean bereizi nahi dugu: ekintzak eta jazokuntzak. Hortarako asmo nozioa darabilgu. Lehendabizi, zera postulatuko dugu: asmorik gabe ez da ekintzarik (Korta 1994: 14-15).

Hizketa ekintzen hurbilketa aipatzerakoan, diskurtsuaren koherentzia —beti tesuinguruaren arabera— ekintzen arteko koherentzian oinarritzen dela esan dugu. Beraz, asmorik gabe ekintzarik ez bada, hizketa ekintzen ikuspuntutik nolabait diskurtsuaren koherentzia partehartzaileen asmoen arabera eraikitzea posiblea izango da.⁴

Hizketa ekintzen teoria (Austin, Searle) eta Griceren teoria pragmatikoa diskurtsuan eta elkarrizketan asmoek betetzen duten paper nagusia deskribatzeko bide aproposa eskaintzen digute. Gricerentzat, esanahi kontzeptuaren oinarria “hiztunaren esanahiaren kontzeptuan datza”, horrela, hizkuntzaren esanahi konbentzionala, hiztunak, entzulegoak igar ditzan, adierazten dituen asmoetatik eratortzen da (Grice 1957). Ideia hau garatuz esanahia definituz gain, asmoen bitartez komunikazioa definitzerik badago (Strawson 1964: 28):⁵

The explanation of the introduced concept is given in terms of the concept of intention. S nonnaturally means something by an utterance *x* if S intends (*i*₁) to produce by uttering *x* a certain response (*r*) in an audience *A* and intends (*i*₂) that *A* shall recognize S's intention (*i*₁) and (*i*₃) that his recognition on the part of *A* of S's intention (*i*₁) shall function as *A*'s reason, or a part of his reason, for his response *r*.

Honekin batera Grice 1975-k, elkarrizketa jokaera arrazionala den neurrian, esaten ez dugun zerbait nola komunika dezakegun azaltzen digu. Diskurtsua elkarrizketa bezala kooperazio printzipioaren bidez bideratutako ekintza arrazionala dela suposatuz, diskurtsuan ematen diren prozedura inferentzialak nolabait ezaugarri daitezke. Griceren esanetan, hiztunak *p* esaterakoan *q* komunikatzen digu (inplikarzen digu) ondoko baldintzak betetzen badira (Grice 1975):

- (i) Hiztunak *p* esaterakoan kooperazio printzipioa errespetatzen duela suposatzen badugu.
- (ii) Hiztunak dioena kooperazio printzipioarekin konsistentea egiteko *q* pentsatzen duela suposatzeraz beharturik bagaude.
- (iii) Hiztunak (ii). baldintza premiazkotzat hartuko dugula pentsatzen badu.

Hemendik diskurtsuaren koherentziara hurbiltzeko bidea irekitzen zaigu.

Austin 1962-k “hizkuntza/ekintza” dikotomia hausteko saiakuntza asmoei lotuta

(4) Ikus Allen 1983, 1981, Appelt 1985 eta Cohen et al. 1990 beste batzuren artean.

(5) Strawsonen Grice 1957-n emandako definizioaren bertsioa.

agertzen zaigu. Austinentzat “zerbait esatea zerbait egitea da” zentzu ezberdin haue-
tan:

- (i) Hizketa ekintza lokuzionari gisa ager daiteke, zerbait esateko ekintza gisa.
- (ii) Hizketa ekintza ilokuzionari gisa, zerbait esateaz gain zerbait egiten dugu-
nean (hitza eman, bataiatu, agindu, eskatu...).
- (iii) Hizketa ekintza perlokuzionari gisa, ekintza ilokuzionariak entzulearen jo-
kaera, uste eta asmoetan dituzten eraginak kontsideratuz.

Bistakoa da komunikazioaren kasuan, hizketa ekintza ahalbideratzen duen neu-
rrian, komunikazio asmoak eragin perlokuzionaria izan behar duela. Gainera, eragin
perlokuzionari horrek komunikazio asmoa ez bakarrik ageria izatera baizik eta iden-
tifikagarria —(i₂)— izatera behartzen du. Beraz, komunikazioa ikuspuntu honetatik
komunikazio asmoak erakusterakoan sortzen den ekintza besterik ez da.

Dakigunez, asmo eta ekintzen arteko lotura estua da, alde batetik, ez da ekintza-
rik asmorik gabe, eta bestetik, asmo bat asetzen duen objektua ekintza bat da.
Horrela, komunikazio asmoa asetzen duen ekintzak, komunikazio asmoaren ezauga-
rriak kontuan izanik, elkarrekintza behar du izan. Eta hau bistakoa da: komunikazio
asmo bat asetzeak ekintza komunikatibo bat eskatzen du eta horrelakorik gerta
dadin, komunikazio asmoa asetzea, norbaitek bereganatu beharko du komunikazioa-
ren objektua (komunikatzen dena). Edozein komunikazio ekintzan, beraz, gutxienez
bi ajentek parte hartzen du,⁶ eta ez hori bakarrik, entzulearen erantzuna ezinbes-
tekoa da hitzunaren komunikazio asmoa asetzeko. Hau da, biek egiten dute zerbait.
Baina, nola ulertu behar dugu elkarrekintza?

Hizketa ekintzen ikuspuntutik, komunikazioa mugatzen duten baldintzek, zuze-
nean elkarrekintza sortzen dute. Hurbilketa pragmatikoan hizkuntzaren esanahi
konbentzionala hitzunaren esanahitik eratortzen da, beraz jendeak bere komunikazio
asmoak betetzeko ez du beti esaten adierazi nahi duena. Hitzunak adierazten dituen
asmoak entzulegoak inferitzea espero du. Honela, elkarrekintza prozesu inferentzia-
len arabera uler dezakegu. Sperber eta Wilson 1986-k garatzen duen eredu infe-
rentziala zentzu honetan adierazgarria izan daiteke.⁷

Eredu inferentzial honen ezaugarri nagusiak aztertu baino lehen, komenigarri
litzateke adieraztea zer suposatzen duen asmo eta inferentzien analisisian oinarritutako
diskurtsuaren azterketa proposatzeak:

- (1) Asmoen igarpena posible da. Nahiz eta edozein perpausaren bitartez egin
daitezkeen, komunikazio ekintzek, kultura, gizarte eta testuinguru zehatzek

(6) Kontradibide bezala, monologoa, solilokioa, etab. ematen badira ere, proposamenak ez du
indarririk galtzen baldin hauek kasu berezi bezala kontsideratzen badira: hitzun bakar batek eraikitzen
dituen ‘elkarrizketak’ bezala ulertuz. Horrela, hitzuna eta entzulea bat badira ere, bakar honek bi paper
jokatzen ditu.

(7) Planen teorian oinarritutako eredu inferentzialaren bertsioa, hain zuzen ere, elkarrizketara
bideratutakoa, Cohen, Perrault eta Allen-en lanetan aurki dezakegu. Ikus Cohen et al. 1981. Asmoak
planekin identifikatuz, hizketa ekintzak abiapuntutzat harturik, entzuleak hitzunaren hizketa ekintzak
plan baten zati gisa interpretatzen ditu, hitzunaren plana inferitzeko erabiliz. Ikus Cohen et al. 1990,
bereziki Grosz eta Sidner 1990.

definitutako ekintzak direnez, baldintza hoiak islatzen dituzte. Baldintza hauek bai ekintzen klasifikapena bai hauen identifikapena posibilitatzen dituzte.

- (2) Asmoak errepresenta daitezke. (Dakigunez, asmoak ezin dira isolaturik definitu, helburu, nahi, uste, etabarren sare baten arabera bereiz daitezkeelako). Sare osoa zehazturik ez badago ere, asmo eta usteen arteko harreman oinarrikoenak formalki definiturik daude (Arrieta 1993, Korta 1994, Tuomela 1991, Tuomela 1993).
- (3) Prozesu inferentzialak errepresentazio hoiaren manipulazioak dira. Hau da, ekintza baten asmoa identifikaturik asmo horretatik usteak, desioak, etab., inferi daitezke, guztia, noski, testuinguru zehatz batean emanik.⁸

Ikuspegi formal batetik, errepresentazioaren unitatea proposamena da. Proposamenak semantikoki osoak diren (egiazko ala faltsu izan daitezkeen) egitura logikoak dira eta, aldi berean, uste, nahi, asmo, desio, etabarren objektuak. Horrela, proposamenek mundua errepresentatzeko aukera emateaz gain, mundu horrekiko ajenteek dituzten jarrerak errepresentatzeko bidea eskaintzen dute.

Demagun hiztunak munduari buruz duen irudia proposamenen multzo batez errepresentatzen dugula.⁹ Informazioa edukin proposizionalarekin identifika daiteke eta bi kategorietan banatu. Alde batetik, komunikazio ekintza batean jasotzen den informazioa, berria deituko duguna; eta bestetik, ajenteak aldeaz aurretik zuena. Bi informazio tipo hauen bitartez testuinguruarekiko inferentzia defini daiteke non eredu inferentzialaren oinarriko ezaugarriak mugatzen diren. Ajenteak Q proposamena B proposamenen multzotik T testuinguru batean inferitzen du baldin eta bakarrik baldin

- (i) B eta T-ren bilduratik Q inferitzen badu;
- (ii) Q, ezin da B multzotik inferitu, eta
- (iii) Q, ezin da T multzotik inferitu,

non B informazio berria den, T ajentearen aldeaz aurreko informazioa eta Q inferitzen dena.

(8) Hizketa ekintza baten esanahia erabakitzeak, interpretatu egin beharko ditugu emandako eta auresuposatutako elementu errelebante guztiak. Orokorrean ikusita beraz, eta inferentzia posiblea izanik, aski izango da elementu berezien zehazketa interpretazioa bideratzeko.

(9) Hauxe da kasua adibidez Adimen Artifizialean. Ajente baten deskribapena osatzen duten proposamenen multzoa Ezagutza Basea da. Ezagutza Basea egituratua egon daiteke eta ajentearen jarrera ezberdinak modulo ezberdinetan antolatuturik: alde batetik ezagutza edo usteak, bestetik asmoak eta hauek sortzen dituzten planifikazio prozesurako informazioa azkenik, adibidez. Modulazio honek jarrera ezberdinen arteko harremanak kontrolatzea permititzen du, azken finean, jarreraren sarearen errepresentazioa baita. Ajente ezberdineko munduak aztertze asmoz, Adimen Artifizialak azpideremu bat zabaldu du azken urteotan "Adimen Artifizial Banatua" izenarekin. Horrelako munduetan komunikazioa ezinbestekoa izanik, modulo ezberdinetako "input" bezala uler daitezke hizketa ekintza ezberdinak. Demagun, adibidez, norbaitek norbaiti zerbait egiteko laguntza eskatzen diola. Mezu honek ajente horrek asetzetik ez duen asmo bat adierazten duenez —eta sistema kooperatzeko definitzen dugula auresuposatuz—, lehenik eta behin, hartzaileak bere asmoekin bat datorren (asegarria den) aztertu beharko du, ondoren, beste harreman guztiak ere asetzen diren ikusirik, asmo hori bereganatu egingo du.

Sperber eta Wilsonen terminuetan definitutako testuinguru hau mugatua da oso. Zabalago bat behar dugu komunikazioan parte hartzen duten elementu guztien berri eman ahal izateko. Argi dago entzulearen ezagutza ezinbestekoa dela komunikaziorako baina argiago oraindik guztia ez erabiltzeaz gain (errelebantea dena baka-rik), mezua interpretatzeko zein ezagutza erabili behar duen hiztunak mugatzen duela. Hau da, esaldi bakoitzak (hiztunak beraz) mugatzen du "diskurtsuaren unibert- suta" bezala ulertzen dena. Honek, noski, baldintza batzuk aurreuposatzen ditu. Hiztunak diskurtsuaren unibert- suta entzulearen funtzioan erabakitzen du eta, beraz, ezagutza amankomuna beharrezkoa izango da komunikaziorako.

Horrela ikusita, uste eta ezagutza amankomunek¹⁰ diskurtsuaren unibert- suta de- finituko dute. Hauen artean, noski, asmo eta usteen arteko harremanak daudelarik. Ikuspegi honek baditu bere arazoak. Alde batetik, asmo bat asetzea ekintza bat bada, errealizazioarekin bukatzen delarik, nola definitu elkarrekintza? Bestalde, ajente bat baino gehiagoko ekintza bada, zernolako asmoek hartuko dute parte? Hau da, ba al da talde asmorik?¹¹ Asmoak kontzeptu psikologikoak dira eta adimenean kokatzen direnez, tentsio nabarmena dago asmoen bidez definitutako ekintzaren teoria batek eskaintzen digun ekintza nozioaren eta elkarrekintzaren analisiak eskatzen digun asmo amankomunen artean. Ez bada adimen amankomunik, nola gerta daiteke asmo amankomunik egotea?

Arazo hau gainditze asmoarekin aurkako bi bide eskaini dira. Lehenik, proposa daiteke ez dagoela elkarrekintzarik, ekintzak daudela soilik. Hau da, guztia ajente bakarraren ekintzetara erreduzigarria da. Honek ez gaitu batere asetzen goian aipatu dugunagatik: diskurtsua ez da esaldi kate huts bat, ez da ekintzen kate bat, zerbait gehiago baizik. Gainera, ezin dira ahaztu ajente batek egin ez ditzakeenak eta, hala ere, egiten direnak; ekintza kolektiboak badira taldeko ajenteen ekintzen batura hursa ez direnak.¹² Bigarrenik, asmo kolektiboak primitibotzat har daitezke, inongo arazo ontologikoetan sartu gabe. Honek ere ez gaitu guztiz asetzen arazoa mantendu egiten delako.

Goian aurkeztutako eredu inferentzial orokor honen arabera prozedura inferen- zialak bereiztutako informazio hoi- en elkarreaginaren emaitzak dira. Informazio

(10) Ezagutza amankomuna hauxe besterik ez da: denok dakigu denok dakigula denok dakigula ... Horrelakorik lortzea bi bide ezberdinetatik egin daiteke, edota komunikazioaren bitartez edota lekuko izanik. Hau da, diskurtsuaren domeinua espreski adieraziz edo definituz finka daiteke edota egoerak finkatzen du. Dena den, beti aurreuposatu behar da amankomuna den zerbait komunikazioa hasteko. Aurreuposatutakoa egiazkoa bada komunikazioa posiblea izango da. Pentsa dezagun, hizkuntzari (euskara/gaztelera) buruz egunoro egiten ditugun aurreuposizioetan. Ikus Smith 1982 eta Bach eta Harnish 1979, hizketa ekintzen ikuspegitik ezagutza amankomunaren azterketarako; edo ikuspegi formal batetik Halpern 1990 eta Colombetti 1993.

(11) Ikus Korta 1994, Colombetti 1993 eta Airenti et al. 1993 non asmo kolektiboak primiti- botzat hartzen diren.

(12) Ikus adibidez Korta 1994 edo Searle 1983 non ajente ezberdinek egiten dituzten bakar ekintzen kateak eta elkarren arteko ekintzak ezberdintzeko kooperazio nozioa aurkezten den. Elka- rrekintza batek partehartzaileen asmo eta usteen arteko harreman berezi eta zehatz batzuk definitzen ditu. Bakar ekintzetan aldiz, ajenteak ez du besteekiko inongo jarrerarik (errelebante edo berezirik behintzat).

berria esaldiak interpretatzerakoan sortzen den informazioa da. Prozedura interpretatibo hori burutzeko besteak beste ondoko urrats hauek eman beharko dira: esaldietan agertzen diren adierazpenen erreferentzia finkatu; eman daitezkeen anbiguotasunak ezabatu; adierazitako ekintza mota identifikatu eta esaldi bakoitzari dagokion edukin proposizionala mugatu. Horretarako ezinbestekoa izango da diskurtsuan esaldien artean (maila intentzionalan) sortutako elkarrerlazioak kontsideratzea. Azken finean esaldien interpretazioan, esaldiak burutzerakoan, diskurtsuari koherentzia ematen dion asmoen egitura abiapuntutzat hartuko da; hots, hizketa ekintzak identifikatzerakoan, hauetatik erator eta igartzen diren asmoetatik abiatuz interpretaziora iritsiz. Ez gara saiatuko interpretazio prozeduren zehaztasunak azaltzen; bestalde aitortu behar dugu ez dela batere erraza hoietan errelebanteak izan daitezken elementuak bereiztea. Momentuz interesatzen zaiguna zera da, diskurtsua testuingururaturatuko inferentzien kate baten koherentzian datzan elkartruke linguistiko bezala ikustea. Elkartruke linguistiko honetan ajente bakoitzaren ekarpenen interpretazioa eragin inferentziala izateko bideratutako ekintza gisa ulertuz, eraginaren ideia ajente bakoitzaren munduari buruzko errepresentazioan —prozedura inferentzialak direla medio— ematen diren aldaketa eta hobekuntzetan gauzatzen da. Beraz, horrela ulertutako eraginak prozedura inferentzialen emaitzatzat har daitezke, hauen artean munduari buruzko irudi koherentea mantentzeko egingo diren saiakera eta aldaketak kontsideratuko direlarik.

Ikuspegi honetan koherentzia semantikoa, diskurtsuaren egiazko interpretazioa hain zuzen ere, pragmatikatik datorkigu; hau da, koherentzia intentzionala, zeren prozedura inferentzialak asmo, uste eta helburuek osatzen duten sarean burutuko baitira. Orain arte inferentziaz hitzegin badugu ere, ez dugu zehaztu nola ulertu behar den. Horretaz zera aipatuko dugu, inferentzia ez da ulertu behar zentzu logiko huts batean, zentzu zabal batean baizik: zentzu kognitibo batean. Jokuan sartzen diren prozedura inferentzialak ezberdinak izan daitezke, inferentzia deduktiboez gain arrazonaketa induktiboa, abduktiboa, analogikoa, etab., ere azaltzen direlarik. Honek ez du esan nahi, noski, ikuspegi konputazional batean inferentzia logikoak zeresanik ez duenik, horrelako ikuspegi batek jasan behar dituen erredukzioak kon-tuan izanik.

Diskurtsuaren eraikuntzan inferentzia tipo ezberdinek parte hartzen dutela gauza nabaria bada. Argi dago baita ere hizketa ekintza baten aurrean eratoritzen den bapateko ondorioa hauxe dela: hiztunak esaten duena esan nahi zuela. Eta gainera, ekintza horrek duen eragina ere sortarazi nahi zuela. Beraz, bapatean entzuleak hiztunak egin duen ekintzatik bi asmo deribatzen ditu. Beraz diskurtsuaren interpretazio egokia lortzeko besteen ekintzei buruz arrazonatzea beharrezkoa da, bai hizketa ekintzei buruz bai ekintza inferentzialesi buruz.

Nahiz eta diskurtsuen helburuei buruz hitzegitea zaila izan (alde batetik aldakor-rrak direlako eta bestetik diskurtsua bera helburuak mugatzeko erabiltzen delako) orokorrean diskurtsuaren azpiegitura intentzionalak asetzen duen 'metahelburu' bat aipa daiteke, hots, komunikazioa ahalbideratzen duen elkarrekintza arrazionala. Elkarrekintza hau arrazionaltasunaren printzipio orokor baten bitartez adieraz daiteke, hala nola, ajente batek bere ekintza baten bidez bere helbururen bat asetzerik duela

uste badu, agente horrek ekintza hori burutuko du. Diskurtsuaren kasuan ekintza hauek esaldietan gauzatzen dira. Griceren kooperazio printzipioa eta maximek komunikazioan elkarrekintza arrazionala ematen dela aurreuposatzen dute eta, beraz, Griceren printzipioa eta maximak ekintza arrazionalaren bertsio pragmatiko bezala ikus ditzakegu. Era berean interpreta dezakegu Sperber eta Wilsonen errelebantzia-
ren printzipioa edo komunikazioa bideratzen duen beste edozein printzipio, baldin printzipio hauen alde inferentziala azpimarratzen badugu eta koherentziaren berri ematen badute. Azken finean, diskurtsuaren analisirako oinarritzko aierua hau da: diskurtsua agente arrazionalen ekarpenen bidez eraikitzen den egitura da. Azaleko egitura hau agenteen asmo, uste, eta helburuen elkarrerlazioek osatzen duten azpiegitura izkutuan oinarritzen da eta ondorioz azpiegitura honen azterketa beharrezkoa ikusten dugu diskurtsuaren koherentzia azaltzeko.

Ondorioak

Diskurtsua ikuspegi ezberdinetatik aztertzen bada ere, bada diskurtsuaren teoria orokor bat eraikitzerik eta horretarako hauek eskaintzen dituzten emaitzak aztertu beharko dira. Nonbaitetik abiatzekotan, gure proposamenak diskurtsuaren ezaugarri nagusiak finkatu nahi ditu.

Lehenik, diskurtsua ez da unitate linguistikoen segida huts bat. Eta ez da horrela bere koherentzia ezin azal daitekeelako forma linguistikoa eta esanahia soilik kontsideratuz. Bigarrenik, forma linguistikoa eta esanahia diskurtsuaren osagaiak izan arren, diskurtsua ez da bere osagaien batura, hauen elkarrerlazioan sortzen den zerbait baizik. Eta gainera, elkarrerlazio hau beti testuinguru pragmatiko batean ematen den zerbait da, non alde soziala, kulturala eta partehartzaileen jokabideak asmo, iritzi, nahi eta ustez osatutako sare konplexu batean aurkitzen diren. Hirugarrenik, esaldiak definizioz testuinguru mugatueta interpretatu behar dira; hau da, aurrez emandako esaldiek sortzen duten testuingurueta. Baina baita ere aipatutako sare konplexu horrek sortzen duen testuinguru orokorrean. Laugarrenik, nahiz eta egitura linguistikoen koherentzia ikuspegi sintaktiko eta semantiko isolatuen arabera azal daitekeen, diskurtsua azterketaren objektu bezala harturik, esaldien testuinguru intentzionalen interpretatu daiteke, koherentzi orokorra mantenduz. Azkenik, diskurtsuari diskurtsu mailan ezin diogu helburu zehatzik jarri. Azken finean, diskurtsu beraren eraikuntzan sortzen da diskurtsuaren koherentzia, hau da, eraikuntzaren prozesuan ematen diren elkartruke linguistikoen helburu aldakorrek osaturik. Dena den, honek ez du esan nahi diskurtsuari metahelburu batzuk ezin dizkiogula jarri, Gricek inplikaturak azaltzeko asmatu zituen printzipio orokorren antzera. Ildo beretik, Sperber eta Wilson 1986 lanak errelebantzia printzipioa proposatzen du komunikazioa azaltzeko. Beraien ustetan badago hiztuna eta entzulearen erakarpen ezberdinak printzipio honen arabera interpretatzerik: errelebantzia printzipioak finkatzen dituen baldintzak komunikazioan sortzen den elkarrekintzaren interpretazio inferentzial baten moduan ikus ditzakegu, non inferentzia hoiaren prozesamenduaren kostua ere kontuan hartzen den.

Eredu intentzional-inferentzial baten alde apostua egiteak, beraz, zera suposatzen du:

- (i) Diskurtsuan asmoen azpiegitura bat dagoela defendatzea.
- (ii) Asmoak identifikagarriak direla.
- (iii) Asmoak erabilitako esaldietatik eratorzen direla.
- (iv) Esaldiak testuinguru pragmatiko batean interpretatu behar direla eta, ondorioz, prozedura inferenzial hauek testuinguruaren ezaugarriekiko nolabait sensibleak izan beharko dutela.
- (v) Diskurtsuaren koherentzia asmoen koherentzian datzala. Honek azterketa maila pragmatiko batetik hastera behartzen gaitu, ondoren koherentzia bai semantikoa eta bai sintaktikoaren berri eman ahal izateko.

Baina koherentzia pragmatikoak koherentzia semantikoa ziurtatzen al du? Hau da, adierazitakoaren koherentziak esandakoaren koherentzia inplikatzeko al du? Alde batetik, diskurtsuaren interpretazio intentzionalak ajenteen jarrerak interpretazioaren oinarri bezala kontsideratuz, diskurtsuaren esanahiaren zeharkako interpretazio bat eskaintzen digu. Koherentzia pragmatikoak koherentzia semantikoa ziurtatzen digu, interpretazio intentzionalaren helburua egiazko diskurtsua egitea baita. Berez, interpretazio intentzionala, koherentzia izanez gero, diskurtsuaren interpretazioa denez, koherentzia semantikoa garantizatzen digu. Diskurtsuaren egituraren analisisa bideratutako hurbilketen artean ere azaleko egitura linguistikoa, hau da, esaldi kateen ezaugarri sintaktikoak aztertzeako azpiegitura intentzional bat proposatzen da (adibidez, Grosz eta Sidner 1986).

Erreferentziak

- Airenti, G., B. G. Bara eta M. Colombetti, 1993, "Conversation and Behavior Games in the Pragmatics of Dialogue", *Cognitive Science* 17, 197-256.
- Allen, J. F., 1983, "Recognizing intentions from natural language utterances". In M. Brady eta R. C. Berwick (arg.), *Computational Models of Discourse*, Cambridge, MA: MIT Press.
- Appelt, D., 1981, *Planning Natural-language Utterances to Satisfy Multiple Goals*. Technical Note 259, SRI International, Menlo Park, California.
- _____, 1985, *Planning English Sentences*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Arrieta, A., 1993, *Lógica para la Inteligencia Artificial: Conocimiento, Creencia e Intención*. Doktorego Tesia, UPV-EHU, Donostia.
- Austin, J. L., 1962, *How to do things with words*. arg. 1975, J. O. Urmson eta M. Sbisà (arg.). Oxford: Oxford University Press.
- Bach, K. eta R. M. Harnish, 1979, *Linguistic Communication and Speech Acts*. Cambridge, MA: MIT Press.
- Cohen, P. R., J. Morgan eta M. E. Pollack, 1990, *Intentions in Communication*. Cambridge, MA: MIT Press, 1990.
- _____, C. R. Perrault eta J. F. Allen, 1981, "Beyond question answering". In W. Lehnert eta M. Ringle (arg.), *Strategies for Natural Language Processing*, Hillsdale, NJ: Lawrence Erlbaum, 1981, 245-274.
- Colombetti, M., 1993, "Formal semantics for mutual belief", *Artificial Intelligence* 62, 341-353.
- Garfinkel, H., 1967, *Studies in Ethnomethodology*. Englewood Cliffs, NJ: Prentice Hall.
- Goffman, E., 1981, *Forms of Talk*. Philadelphia: University of Pennsylvania Press.

- Grice, H. P., 1957, "Meaning", *Philosophical Review* 66, 377-388. Berrarg. in H. P. Grice, *Studies in the Way of Words*. Cambridge, MA: Harvard University Press, 1989, 213-223.
- _____, 1969, "Utterer's Meaning and Intentions", *Philosophical Review* 78, 147-177. Berrarg. in H. P. Grice, *Studies in the Way of Words*. Cambridge, MA: Harvard University Press, 1989, 86-116.
- _____, 1975, "Logic and Conversation". In P. Cole eta J. L. Morgan (arg.), *Syntax and Semantics, vol. 3: Speech Acts*. New York: Academic Press, 1975, 41-58. Berrarg. in H. P. Grice, *Studies in the Way of Words*. Cambridge, MA: Harvard University Press, 1989, 22-40.
- Grosz, B. J. eta C. L. Sidner, 1990, "Plans for Discourse". In P. R. Cohen, J. Morgan eta M. E. Pollack, *Intentions in Communication*. Cambridge, MA: MIT Press, 1990, 417-444.
- _____, & _____, 1986, "Attention, Intentions and the Structure of Discourse", *Computational Linguistics* 12, 175-204
- Gumperz, J., 1982a, *Discourse Strategies*. Cambridge: Cambridge University Press.
- _____, 1982b, *Language and Social Identity*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Halpern, J. Y., 1990, "Knowledge and Common Knowledge in a Distributed Environment", *Journal of the ACM* 37, 549-587.
- Korta, K., 1994, *Elkarrizketaren eredu baterantz: asmoa, ekintza, komunikazioa*, Doktore Tesia, UPV-EHU, Donostia.
- Sacks, H., Schegloff, E. eta G. Jefferson, 1974, "A simplest systematics for the organization of turn-taking in conversation", *Lg.* 50: 696-735.
- Schiffirin, D., 1994, *Approaches to Discourse*. Oxford: Blackwell.
- Searle, J., 1969, *Speech Acts: An essay in the philosophy of language*. Cambridge: Cambridge University Press.
- _____, 1983, *Intentionality: An essay in the philosophy of mind*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Smith, 1982, *Mutual Knowledge*. New York: Academic Press.
- Sperber, D. eta D. Wilson, 1986, *Relevance: Communication and Cognition*. Oxford: Blackwell.
- Strawson, P. F., 1964, "Intention and Convention in Speech Acts", *Philosophical Review* 73, 439-60.
- Tuomela, R., 1991, "Intentional Single and Joint Action", *Philosophical Studies* 62, 235-262.
- _____, 1993, "What is cooperation?", *Erkenntnis* 38, 87-101.
- van Dijk, T. A. 1977, *Text and context: Explorations in the semantics and pragmatics of discourse*. London: Longmans.